

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Añanako Kuadrillaren 2026ko ekitaldirako lanpostuen zerrendaren aldaketa partzialaren behin betiko onespena

Lanpostuen Zerrendaren aldaketa partzialaren administrazio-espeditentari ez zaionez alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu, eta aldaketa hori hasiera batean 2026ko uztailaren 7ko kuadrillaren batzarraren erabakiaren bidez onartu eta 2026ko uztailaren 29ko ALHAOn 86. zenbakian argitaratu zenez, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, behin betiko bihurtutako aldaketa partzial hori argitaratzen da.

Aldaketak 10., 11. eta 12. zenbakidun lanpostuei eragiten die, guztiak goi-mailako arkitektoa izenekoak, eta haren helburua da lanpostu horiek betetzeko eskatzen den titulazio-baldintza Espainian arkitektoaren lanbide arautuan jarduteko gaitzen duen unibertsitate-titulazio ofizialera egokitzea.

Ondorio horietarako, titulazio-baldintza betetzat joko da honako titulazio hauetakoren bat duten pertsonen kasuan: aurreko unibertsitate-antolamenduei dagokien arkitektoaren unibertsitate-titulu ofiziala; edo arkitektoaren lanbide arautuan jarduteko gaitzen duen unibertsitate masterrean sartzeko baldintza akademikoa den graduiko unibertsitate-titulu ofiziala, dagokion Unibertsitate masterrarekin batera, uztailaren 29ko EDU/2075/2010 Aginduan ezarritakoarekin bat etorritik; edo atzerriko titulazioa, baldin eta homologazioa lortu badu edo, hala badagokio, Espainian arkitektoaren lanbide arautuan jarduteko legez eskatzen den lanbide-aitorpena badu.

AÑANAKO KUADRILLAREN LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA PARTZIALA																
Nº	LANPOSTUA	DOT.	MOTA	DEDIK.	IZAERA	HE	DERRIGORTASUN-DATA	TALDEA	ESKALA	AZPIESKALA	KLASEA	LP	DO	BO	TITULAZIOA/K	OHARRAK
LURRALDEA																
10	Goi-mailako arkitektoa	3	N	100%	F	3	—	A1	A. E.	TEC.	SUP.	C	25	24.452,75	Aurreko unibertsitate-antolamenduei dagokien Arkitektoaren unibertsitate-titulu ofiziala izatea; edo Arkitektoaren lanbide arautuan jarduteko gaitzen duen Unibertsitate Masterrean sartzeko baldintza akademikoa den Graduiko unibertsitate-titulu ofiziala izatea, dagokion Unibertsitate Masterrarekin batera, uztailaren 29ko EDU/2075/2010 Aginduan ezarritakoarekin bat etorritik; edo atzerriko titulazioa izatea, baldin eta homologazioa lortu badu edo, hala badagokio, Espainian Arkitektoaren lanbide arautuan jarduteko legez eskatzen den lanbide-aitorpena badu	B gidabaimena
11	Goi-mailako arkitektoa															
12	Goi-mailako arkitektoa						31/12/2027									

Aldaketa honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Haren aurka, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian; edo, aukeran, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio erabakia eman duen organo berari. Hori

guztia Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta.

Ribabellosa, 2026ko abuztuaren 25a

Lehendakaria

RUBÉN TORREMOCHA GALÁN